

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Simona Maiz Labaka

*Usurbil,
Gipuzkoa
(1927)*

Aurkibidea



Biografia



Gaztañaga baserrian jaio zen, 10 anai-arrebatatik 3. Eskolan moja frantsesekin ibili zen, eta frantsesa ikasteko aukera ere izan zuen. Ezkondu zenean bere jaiotetxean jarri ziren bizitzen, eta ordutik han bizi izan da. Baserrian lan asko egitea tokatu zaio eta 6 seme-alaba izan ditu.

Zintak

USU-014

- **Proiektua:** Usurbilgo Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Data:** 2010-08-02
- **Iraupena:** 71 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

USU-015

- **Proiektua:** Usurbilgo Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Data:** 2010-08-02
- **Iraupena:** 78 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Gurasoen istorioa eta Fraisoroko umeak

- **Erref:** USU-014/002
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:01:11. **Bukatu:** 00:04:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak

Laburpena:

Gurasoek nola ezagutu zuten elkar kontaktzen du: aitaren aldeko amonak

amaren senide ugariri eman zion bularra jaioberritan. Gurasoak Lezora joan ziren eztei-bidaian. Lezora joaten omen zen jendea haurdun geratzeko asmoa zuenean. Koinatak haurrak izateko zailtasunak zituelakoan, Fraisorotik ekarri zuen umea; gerora, ordea, 12 ume izan zituen. Fraisorori buruz hitz egiten du.

2. Aingeruen hiletak eta kanpai motak

- **Erref:** USU-014/004
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:05:52. **Bukatu:** 00:08:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak

Laburpena:

<p>Aingeruen hiletak nolakoak izaten ziren kontatzen du: kaxa zuria, soineko zuria... Lehen kanpaiak desberdinak izaten ziren hildakoa gizona, emakumea edo umea bazen; agonia-kanpaiak ere izaten ziren.</p>

3. Azken igurtzia

- **Erref:** USU-014/006
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:08:52. **Bukatu:** 00:10:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Azken igurtzia: olioia non eta zergatik ematen zen azaltzen dute. Olio hura bedeinkatua izaten zen.</p>

4. Linboa eta kanposantuko txokoa

- **Erref:** USU-014/010
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:14:02. **Bukatu:** 00:15:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Linboari buruz hitz egiten dute. Bataiatu gabeko umeak kanposantuan txoko bereizi batean lurperatzen ziren. 9 egun igaro orduko, bataiatu egin behar izaten ziren umeak.</p>

5. Mojekin frantsesez ikasten hasi zenekoa

- **Erref:** USU-014/013
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:20:48. **Bukatu:** 00:22:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak

Laburpena:

<p>Elizara igandero joaten ziren gaztetan ere. Eskolan denetik ikasten zuten, entziklopedia erabiltzen zuten klaseetan. Frantsesa ikasten hasi zen eskolan; izan ere, irratiko kantak abestea gustatzen zitzaion nahiz eta frantsesez izan eta ordura arte frantsesa ulertu ez.</p>

Transkripzioa

Gaurko estudiyoik ez. Liburu bat. Elizara bai ugari. Goizian mezetaa ta, jaiyan nobiyuakin ni zea juten nitzan, sankristira juten nitzan, azpi hartaa juten nitzan dotriñan eitea, e. Pentsa zazu, nobioakin ibilli arren. Hola ohittu giñen reljio hortan... Eta ez dakat penaik gaiñea, ez dakat penaik. -Ze ikasten zenuten eskolan.

-Eskolan? Danetatik. Geografia, Historia... Una enciclopedia, bat, dana han sartzen zana. Pentsa zazu. Hamaika-hamabi urtekin atea giñen, bizimoua atea deu behintzat aurea. mutplikaziuak eta sumarrak eta kebraduk eta ikasi giñun; ja-ja, batxillerraik ez baiña behintzat bizitzeko aiña [at] ikasi gendun.

Joxe: -Dotriña bai.

-Hoi bai. Ni frantsesez'e hasi nitzan bastante. Eske nun... Gaur'e bai, oaindik ez da denboa asko Marixabelek, aldameneko gukin bizi danak esan zidan: "¿Ximona, sabes qué recuerdo tengo de tí? Que no hacías más que cantar. Sabías todas la canciones de la radio". Nik bai, nik radiua jarri ta... Eta gaur igual, ikeragarri gustatzen zait. Eta, klaro, ordun ba frantsesez ikasten, ez nun gogoik hola nik estudiantzeko, atxurra're nahiyo, eta edadia're halako zea ta, bueno. Behintzat monjak: "¿No os da vergüenza? La Simona que está cantando ya ves, las canciones en francés..." Yo en francés todo, todo lo que me den decación todo. Eta "tienes que aprender el francés" esan zidan egun batian. "Que no, que no madre, que no". "Que sí, que sí Ximona" ta hasi nitzan, oraziuak-eta, parre eiten die umiak oain esaten dizkitenian, oraziuak eta numeruak cieneraiño ikasi bainiñun. Pero luego eso de la O con la U y no sé qué, anda ya! Se me hacía tan violento que no. Letzen ez nun ikasi.

-Dana belarritikan?

-Honbre, ez, han giñun gere kuadernoak eta.

6. Astoarekin izandako eskapada

- **Erref:** USU-014/016
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:24:59. **Bukatu:** 00:27:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Zaldi gainean ibiltzeko zaletasun handia zuen Simonak. Behin astoarekin izandako istripua kontatzen du. Abereak iel egoten dira eta behiak susara.

Transkripzioa

-Ta afiziua nun zaldi gaiñian ibiltzeko, Joxe. Ni aberatsa izan banintzan, hipika. Seguro, e! Harekin Luberrira juten nitzan. Pozik juten nitzan, mendia jun bihar zan eta. Haren gaiñian juteatikan juten nitzan.

Joxe: -Astua zan hua, e!

-Astua? Ni behin garbitu ez niñunian! Olloki aldea jun nitzan sagar bila, bi xesto eukitzen zittuan astuak. Ezautuko dezu, noski, "al costau". Haik betetzea, astalkak, sagarrez, hurrungo egunian Donostia eamateko. Eta tira eta tira /tia ta tia/ ta Ollokitikan ya barrena, belardin barrena netorrela, ta zeon asto bat Kontseju Txikikua edo Olloki aldian. Hua arrantzaka eta honek jun nahi ez. Eta hoi emen da arra ta emia zialako. Fíjate!, zeluak. Saltatzen zait gaiñea, heltzen nau bizkarretik. Hola, e, hartu nion, hemenditxik azal-azalian. Ordun txikitu nahi baniñun azpin harrapatu ta txikituko niñun ni. Haren jeniua, hua larriya! Geoztik nun bildur bat! Ikeragarri eskapaa in nun, bakar-bakarrik nitzan mendin eta, gaiñea saltatuta, raa!, hortzakin.

-Eta gero...

-Ba hoi zan zeagatikan, ahal zan bezela etxea etorri ta. Ez zan klinikaik eta residentzirikan. Hori emen zala horreagatikan, arra ta emia zialako. Beak entzuten dittue beren marruk, entenditzen dia nubaitt. Eta harek nahi zun emia, guria arra zan eta.

-Nola esaten zaio horri, zaldiak emia nahi dunian.

-Que está en...

Joxe: -Igel...

-Igel aittu izan det, "en celo", que está en celo".

Joxe: -Aberiak "iel", behiyak "susa".

7. Zaldi gainean ibiltzeko zaletasuna eta trebezia

- **Erref:** USU-014/017
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:27:00. **Bukatu:** 00:30:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Zaldian ibiltzen nola ikasi zuen kontatzen du. Behin Kalexartik zaldi gainean zitzu bizian Gaztañagara etorri zen. Zaldi gainean joateko ez zuten soka eta eserleku askorik jartzen.

8. Aitonak izandako istripua

- **Erref:** USU-014/021
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:33:18. **Bukatu:** 00:35:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak

Laburpena:

Aitonak treneko istripua izan zuen: besoa harrapatu zion, gangrenatu egin zen eta handik bi egunetara hil zen. Inguruko ospitaleak aipatzen dituzte.

9. Gerrako soinuak

- **Erref:** USU-014/023
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:36:27. **Bukatu:** 00:38:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerrako bonben soinuak gogoan ditu. Gerran zauritu zuten mutil bat eskutan nola ekarri zuten ikusi zuen. Sirenak entzuten ziren noizean behin, bonbardaketa hastera zihoala abisatzeko.

Transkripzioa

-Gerra hasi zan eguna gogoratzen dezu?

-Gerra hasi zan eguna. Ez, ni tiroteuen hoi ta nola etorri zian guardik eta.

Eta gero gaiñea bat hortikan botatzen zuen, esan dizut, oain aitzen detenian telebisiuan, ematen nau halako zea bat, fiii! nola bonbak zeatzeko hoi ta. Bum!, halako batian lehertu da, ikusi gendun jata nola lurra gora zeatu zian ta sekulako zea iña izango zan, nola esaten zaio zuluai, zulu ta. Bai, hua begin aurrian dakat. Umiak, beatzi urte, kalea jun eta nola ekarri zuen kamillan Kulturetxia don hortan, azpin kapilla zan, ez dakit jun zan behiñ'e eliza, kapilla txiki bat zan mojetan, bai hortxe. Sartu ta ezkerreta aurrenengo zea. Horrea sartu zuen bat kamillan handik herittuta. Oain bizi zan ala hil zan ez dizut esango. Baiño begin aurrian dakat eskutan nola ekarri zuen. Ordun ez zan anbulantziaik eta ezer. Klaro, zan tiroteuakin'e ez zan giro izango igual, ta eskutan nola ekarri zuen eta guan beira. Soldadu bat, hoi bai, hor bat lehertu zan.

-Tiroteua...

-Tiroteuana gootzen zait soiñu hoi. Geo sirena jotzen zuen fiii!. Jotzen zuen, nik ez dakit zeatikan.

Joxe: -Gordetzeko. Bonbardeua hastera zijuala. Ahal zunak ahal zun lekun gorde.

-Klaro. Hala izango zien. Ni gootzen naizena hoixe. Inpresia ematen dit gaur oaindikan entzuten detenian, telebisiuan entzuten detenian soiñu hoi fiii!, fin-fin-fiña ta, bum!

10. Irrati-nobelen arrakasta

- **Erref:** USU-014/026
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:42:24. **Bukatu:** 00:43:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:

<p>Irrati-nobelak entzuteko zaletasuna izan du Simonak. Irrati-nobela bat oso sonatua izan zen eta jende askok entzuten zuen hura.</p>

Transkripzioa

-Radio-nobelak bazeuden?

-Ez. Geroa bai baiño ez naiz goatzen gazte-denboakoa. Geroztik bai, urte gutxi diela nobelak, Jesus Maria!

-Eta zuk entzuten zenituen?

-Bai. Gaiñea behin hasi ezkeo ez dezu uzten eta txarrena hoi. Izandu zan bat ikaragarri inportantia, urte batzuk badia baiño. Donostia jun eta goatzen naiz ni arrandein arraia hartzen eta: "No hay nadie, cómo va a haber, es que está la radio no se cuantos". Programa hoi zeola ta arrandein'e notatzen zala, falta iten zala ordu hortan iñez. Muy importante, ta nik segittu nun. Geroztik esan nun ez naiz hasiko, zeatikan behin hasten bazea gustatu iten zaizu, oain Goenkale bezela.

11. Gerra ostean, ogia etxean egin behar

- **Erref:** USU-014/028
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:44:25. **Bukatu:** 00:47:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:

Gerra bukatu zeneko eguna ez du gogoan. Gerra ostean, garia ereiten zuten, harekin ogia egin ahal izateko. Ogiaren masa etxean egiten zuten, okindegira eramaten zuten eta okinak erakusten zien nola egin ogia. Behin garia ebakitzen istripua izan zuen. Odoljarioak gelditzeko armiarma-sarea erabiltzen zuten.

12. Sendabelarren onurak

- **Erref:** USU-014/031
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:49:21. **Bukatu:** 00:50:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Berbena-belarrak erabili izan ditu bizi osoan; onura handiak egin izan ditu hark. Pasma-belarra ere oso ona izaten omen da.

Transkripzioa

-Hasi naiz berbenakin. Bi ordu hola, epela bihar du gaiñea, bero ez du bihar, badu bere trukua, oso kuido haundikua da. Aizu, gaur arte, ez operazioik eta ez ezer. Harekintxe sendatu giñun. Egunero tiratuz kentzen zitzaion bere zikiña; berbenakin sendatu giñun hain illuna ta itsusia zakana. Neroni bildurtuta eaman nun espezialistana. Berbena oso ona da. Oain jakin bihar da hartzen, ojo!, "porque es muy fuerte".

-Joxe: -Guk beti hartu izan deu. Ta pasmo belarra.

-Para los bronquios.

-Joxe: -Pasma belarra. Oain'e etxian eukiko det nik jasota. Horrek bihar du,

euzkirik ez du ikusi bihar.
-Itzalian, bai. Zimeldu in behar du, iartu ez, zimeldu. Nik fede izugarria diot berbenai.
-Joxe: -Ta pasmo bellarrai're.
-Nik pasmo belarra ez det hartu.

13. Umetako jolasak eta saguzar erretzaileak

- **Erref:** USU-014/037
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:57:26. **Bukatu:** 00:59:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetako jolasak aipatzen ditu: buketan, saguzarrak harrapatzen... Saguzarrak harrapatzen zituztenean, zigarroa sartzen zieten.

14. Arto-bizarrekin egindako zigarroak

- **Erref:** USU-014/040
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 01:00:57. **Bukatu:** 01:02:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak

Laburpena:

Nesken artean ez zegoen erretzeko ohiturarik. Arto-bizarrekin zigarroak prestatzen zituzten, baina oso zapore txarra izaten zuten. Aitona bati zenbat zigarro erre zituen galdetu ziotenekoia kontatzen du Joxek.

15. Estraperloko jeneroaren prezioa

- **Erref:** USU-014/041
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 01:02:26. **Bukatu:** 01:03:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Aginagan estraperlistak ibiltzen ziren eta orduan olioak zer preziotan saltzen zuten azaltzen du. Aginagara bizikletaz joaten ziren jeneroa erostera. Estraperloan aritu zirenak aberastu egin ziren.

Transkripzioa

Joxe: -Ordun saka izaten zan. Oliuak eta azukriak eta.
-Estraperluan.

Joxe: -Zea're bai, ekonomatua.

-Ekonomatua're bai. Estraperlua'e bai hamaika pezta pagatzen gendun litrua (olioa), orduako oso garestia zan, Agiñako Eizan. Estraperlista hoik zian. Nola kamioiak ibiltzen zian mutil hoik, hara joten giñan, eta hamaika pezta asko zan ordun, e. Aizu, hoge xentimo esnia, errial nahi, hua hartu ezin eta makina bat aldiz marmitak aldamenian nittula egondu gea Donostin. "De veinte céntimos a una peseta va mucho". Ba hamaika pezta litro oliua ekartzen gendun. Agiñako Egiza, rebuelta txar-txar bat bado elizan azpikaldian.

Joxe: -Hoik zian hemengo kontrabandistak eta.

-Eta nola zijoan hori, bertara joten ziñaten?

-Bai, biharko, biharko. Bizikletan izango zan, besteik ez zan, ordun ez zan motoik eta, kotxeik. Bizikleta zuna're asko.

-Nundikan ekartzen zuten haiek?

-Estra..., zera, kamioneruak.

-Eta nundik?

-Nundik, jakin tzazu. Hoik diru asko in zuela garai hartan esaten zuen.

Joxe: -Hoik ikaragarri. Gehiena Valentzitik ekartzen zuen.

-Eske hemen ez zan ezerre ta.

16. Baserriko lanari esker, etxean goserik ez

- **Erref:** USU-014/042
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 01:03:51. **Bukatu:** 01:05:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Gerra ostean beraiek ez zuten pasa goserik baserriko lanari esker. Simona "bigarren mutila" zen etxean. Olio, xaboia eta azukrea ekarri behar izaten zuten kanpotik; gainerakoa etxean izaten zuten.

17. Arantzazu txokolatea

- **Erref:** USU-014/044
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 01:08:35. **Bukatu:** 01:10:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Arantzazu txokolateari buruz hitz egiten dute: oso txarra eta gogorra omen zen.</p>

Transkripzioa

-Ba harriya baiño gogorraokua zan baiño txokolate naturala hua. Jolin.

-Ze txokolate zan hura?

-Arantzazu.

-Nundik ekartzen zenuten?

-Hemen, dendetatik.
 Joxe: -Hua? Zeakin iten zuen, hondarrakin. Txarraoik!
 -Txokolatia baiño arenilla, latz-latza.
 Joxe: -Hortzak galdu ez giñunian harekin, ez zeon puxkatzeik hua ezta...
 Joe, ze txarra.
 -Papera bere Arantzazuko Ama Birjiñian imajiñakin eta. Dotoria.
 Joxe: -Ez zun baezpare Lorit-eta jartzen. Lorit goatzen al zea? Lorit txokolatia, joe, ear askua!
 -Baiño garestia izango zan.
 Joxe: -Ikeragarri garestia. Arantzazu ta bestia nola zan?
 -Ez naiz goratzen. Zuk esan dezulako Arantzazu're.
 -Eta nun egiten zen Arantzazu hori?
 Joxe: -Hori iten zan zean, erriyo baztarrian, hondarra eukitzen zun eta harekin.... Hua ez zeon iteik fabrikan. La ostra!
 -Hau xelebria!
 Joxe: -Suchard edo.
 -Bai, egia, Antiguako la fábrica Suchard.
 Joxe: -Hor iten zala uste det Arantzazu, e.
 -Izango zan bai, bai. Gaurko zera bezelakua ez zan, gaurko txokolatia bezelakua ez zan.

18. Xaboa etxean prestatzen zutenekoa

- **Erref:** USU-015/003
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:02:48. **Bukatu:** 00:04:27

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Xaboa etxean egiten ikasi zuten: seboa eta olioaren erabiltzen zuten hartarako. Garbiketarako egiten zituzten azaltzen du.

19. Bizikleta eta dantzak

- **Erref:** USU-015/005
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:04:33. **Bukatu:** 00:05:58

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Bizikletan ibiltzea asko gustatzen zitzaienten eta igandero ibiltzen ziren. Dantzara ere joaten ziren Irubidera. Simonak han ezagutu zuen senargaia. Neska-laguntzean mutilek hartzen zuten iniziatiba; neskek inoiz ez.

20. Neska-laguntzako pausoak

- **Erref:** USU-015/007
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:08:37. **Bukatu:** 00:10:05

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Neska-laguntzean eman beharreko pausoak azaltzen ditu: asko begiratzen zuten non eman musu. Aieteko mutil gazte batek eskuan eman zion musu eta inpresio handia egin zion horrek Simonari.

21. Antzerki-emanaldietako osagaiak

- **Erref:** USU-015/013
- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 00:15:08. **Bukatu:** 00:18:50

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Akomodadorearen funtzioaz hitz egiten dute. Antzerkiak beren artean prestatzen zituzten. Antzerki-emanaldiak Usurbilen izaten ziren. Antzezlan bateko musika gogoan du. Aretoa bete-betea egoten zen antzerki-emanaldia zenean.

22. Haurrak etxean edo erresidentzian?

- **Erref:** USU-015/029
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:47:55. **Bukatu:** 00:48:55

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

Laburpena:

Haurrak etxean edo erresidentzian izan, alde handia dago. Simonak askoz nahiago du erresidentzian izan.

23. Kanposantuan lurperatzaileari laguntzen

- **Erref:** USU-015/034
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 01:00:10. **Bukatu:** 01:02:01

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Kanposantuan gorpua hilkutxan sartzen laguntzen aritua da Simona.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com